



EUSKARAREN LEGEAK >>>

bat
Soziolinguistika
aldizkaria

DOSSIERRA

70. zenb. / 2009 (1)

4

MILAKA URRAKETA EUSKARAREN LEGEEN BABESPEAN

Paul Bilbao Sarria

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Helbide elektronikoa: pbilbao@behatokia.org

SARRERA

BAT aldizkariaren 70. zenbakiak *EUSKARAREN LEGEAK* gaia hartu du hizpide eta horren karira, *Hizkuntza-eskubideen eta lege statusaren egoera Euskal Herrian* izeneko eskaerari erantzun nahi diogu artikulu honen bidez.

Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko egoerari buruzko BAT aldizkariaren 58. eta 59. ale monografikoetan, aukera izan genuen bi eremu horietan hizkuntza-eskubideak eta indarrean zegoen araudiari buruzko azterketa egiteko, eta arrazoi horrengatik *Euskararen Legeak* baloratzeko eskatu zaigun honetan beste oinarri bat erabiltzea interesgarriagoa izango dela ondorioztatu dugu.

Euskararen telefonoa zerbitzua 2001eko abenduaren 20an abian jarri zenetik, zazpi mila espedientetik gora bideratu ditu Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, eta horietatik gehien-gehienak hizkuntza-eskubideen urraketak izan dira. Hartara, artikulu honetan hizkuntza-eskubideen urraketari erantzuteko administrazioek Behatokira helarazi dituzten erantzunak izango ditugu aztergai, hain zuzen ere, urraketa horiek justifikatzeko administrazioak zein erakundeek erabili dituzten argudioak.

Euskararen Legeen eraginkortasuna bermatzeko adierazle arras interesgarria eta objektiboa iruditzen zaigu eskubide-urraketen aurrean administrazioek erakusten duten jarrera, horrek jarriko baititu agerian egungo legeriak dituen gabeziarik handienak.

Hala ere, badugu, ezer baino lehen argitu beharreko elementu bat. Zertaz ari gara hizkuntza-eskubideez ari garenean? Izan ere, legeak eskubideak babesteko eraginkorrak diren baloratzeko, eskubide horien definizioa egin behar da.

Oinarrizko eskubideez ari garenean, badugu joera nazioarteko itunei erreparatzeko, eta Estatuak indarrean dituzten araudiek nazioarteko itun horiekiko duten berdintasuna hartzen da kontuan. Tamalez, hizkuntza-eskubideei dagokienez ez dago horiek eskubide subjektibo gisa hartzen dituen nazioarteko itunik.

Euskal Herrian indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren betetze-maila, beraz, ez da inondik inora tresna egokia hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko balorazioak egiteko. Are gehiago, egungo legeen arabera balorazioa egingo bagenu, ez litzateke hizkuntza-eskubideen egoeraren isla erreala eta objektiboa lortuko. Izan ere, nola esan hizkuntza-eskubideak aitortzen ez dituen Konstituzio bat, edota hizkuntza-eskubideak bizi zaren tokiaren arabera aitortzen dituen lege bat betez gero, hizkuntza-komunitate osoko hiztunen eskubideak bermatuko direla?

Ikus dezagun, bada, Behatokiak helarazitako eskubide-urraketei erantzuteko instituzio zein erakundeek baliatu dituzten *Euskararen legeak*:

IPAR EUSKAL HERRIA

Arestian esan bezala, *BAT* Aldizkariaren 59. zenbaki monografikoan, egun Ipar Euskal Herrian indarrean dauden legeak zerrendatu eta baloratu genituen (Konstituzioa, 94-665 Legea...) Hori guztia azterturik, ondorio bakarra atera genuen: Berezko kolektiboak badirenik ez aitortzeak hizkuntza-eskubideak urratu ez ezik, hizkuntzaren beraren biziraupena ere arriskuan jartzen du.

Hala ere, orduetik hona zenbait aldaketa izan direla egiaztatu dugu. Orduan esan bezala, 2007an Behatokiak proiektu guztiak zabaldu zituen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Baionako bulegoaren bidez, eta horrek azterketarako elementu berriak eskaini dizkigu.

Behatokiak helarazitako kexen ondorioz, hainbat administrazioek Legediaren inguruan duen iritzia aski garbi utzi izan diote Behatokiari:

Je vous informe que la loi 4 août 1994 dispose que le français est la langue des services publics d'où il ressort que son utilisation est obligatoire et que seuls les intitulés en langue française ont une valeur juridique, sans que pour autant le recours à une traduction conjointe en langue régionale soit prescrit.

ANPE. Agence Nationale Pour l'Emploi. 2008-07-291.¹

Euskararen Legeen eraginkortasuna bermatzeko adierazle arras interesgarria eta objektiboa iruditzen zaigu eskubide-urraketen aurrean administrazioek erakusten duten jarrera, horrek jarriko baititu agerian egungo legeriak dituen gabeziarik handienak.

***Euskara erabiltzea edo
bestelako hizkuntza bat
erabiltzea ez dute
oztopotzat hartzen,
baldin eta frantsesa
bermatuko bada;
frantsesa ez beste
hizkuntza bat
erabiltzekotan, atzerriko
hizkuntza izango da,
etab. Hartara, euskararen
eraginkortasun juridikoa
hutsala da.***

En réponse à votre courrier [...] je vous invite à vous référer à l'article 1 de la Loi n° 94-554, 4 du Août 1994 relative à l'emploi de la langue française.

Ministère du Budget des Comptes et de la Fonction Publique. 2008-12-31.²

Le Chaiier des charges pour les Bornes Libre Service ne prévoit pas la langue Basque. Par ailleurs aux termes de l'article 1 de la loi 4 du août 1994 [...] Par conséquent, la seule obligation pour la SNCF est de traduire ces informations en deux langues étrangères...

SNCF. 2008-09-17.³

Hortaz, euskara erabiltzea edo bestelako hizkuntza bat erabiltzea ez dute oztopotzat hartzen, baldin eta frantsesa bermatuko bada; frantsesa ez beste hizkuntza bat erabiltzekotan, atzerriko hizkuntza izango da, etab. Hartara, euskararen eraginkortasun juridikoa hutsala da.

Are gehiago, beste zenbait kexatan Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunaren erreferentzia egin arren, eta jakinki Frantziako Estatuak ez duela berretsi, bertako administrazioen erantzuna Frantziako Estatuaren jarrera berrestera mugatu da:

Je tiens toutefois à vous préciser que l'Etat français n'est pas signataire de la Déclaration Universelle des Droits de la Langue citée dans votre courrier et eu la Charte Européenne des langues régionales et minoritaires n'a pas été ratifiée par la France, suite à la censure du Conseil Constitutionnel.⁴

Hortaz, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketen salaketari ez diote erantzuten Frantziako Instituzioek. Ez diote eskubide horri izaera subjektiboa esleitzen, eta beraz, legeriaren arabera ez da eskubiderik urratzen.

Hala ere, Behatokiaren kexak Frantziako Estatuaz haratago iritsi dira, eta nazioarteko erakundeetan bestelako isla izan dute, hain zuzen ere, Frantziako Estatuaren jarrera diskriminatzailea agerian uzteko.

Aipatzekoa da, esaterako, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko Gutxiengoan Aferetarako Aditu Independentearekin Parisen izandako bilkura. Bertan Behatokiak euskaldunek pairatzen dituzten hizkuntza-eskubideen urraketen berri eman ostean, Frantziako Estatuari jarrera aldatzeko gomendio zuzenak egin zizkion:

Acknowledgement of the reality

77. The Government of France is urged to: (1) recognize the existence of national or ethnic, religious and linguistic minorities within its territories and to withdraw its reservation to article 27 of the International Covenant on Civil and Political Rights relating to the rights of persons belonging to minorities and article 30 of the Convention on the Rights of the Child; and (2) ratify the European human rights treaties relating to the rights of minorities, including Protocol No. 12 to the European Convention on Human Rights and the Council of Europe's Framework Convention on the Protection of National Minorities.⁵

Promotion of language, religion and cultural rights

93. The independent expert supports calls for France to ratify the European Charter for Regional or Minority Languages, which provides valuable guidance to all European States in their treatment of such issues, and for the preservation and promotion of the rich cultural and language heritage of each State. The Government of France should support the use of regional and minority languages as a medium of instruction in the early years of public primary education for students who so request.⁶

Edota, 2008an Nazio Batuen Erakundeko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak, Behatokiak helarazitako kexen ondorioz, honako kezkak agertu zituen:

29. The Committee remains concerned about the lack of official recognition of minorities within the territory of the State party. With specific regard to cultural rights, the Committee further notes with concern that some of these rights are not respected – such as the right to use a minority language, which can only be exercised in community with other members of the minority group.⁷

30. The Committee notes with concern that the State party has not made sufficient efforts in the field of preservation and promotion of regional and minority languages and cultural heritage. The Committee also notes that the absence of formal recognition of regional and minority languages has contributed to the constant decline in the number of speakers of such languages.⁸

Horien ondorioz Frantziako Estatuari gomendio zuzenak egin zizkion beste behin:

49. The Committee, while taking note that the recognition of minority groups or collective rights is considered by the State party to be incompatible with its Constitution, wishes to reiterate that the principles of equality before the law and prohibition of discrimination are not always adequate to ensure the equal and effective enjoyment of human rights, in particular economic, social and cultural rights, by persons belonging to minority groups. The Committee therefore recommends that the State party consider reviewing its position with regard to the recognition of minorities under the Constitution, and recognise officially the need to protect the cultural diversity of all minority groups under the jurisdiction of the State party, in accordance with the provisions of article 15. In this regard, the Committee reiterates the recommendation formulated in its previous concluding observations (E/C.12/1/Add.72, para. 25) that the State party (i) withdraw its reservation to article 27 of the International Covenant on Civil and Political Rights and to article 30 of the Convention on the Rights of the Child and (ii) consider ratifying the Council of Europe Framework Convention for the Protection of National Minorities, as well as the European Charter for Regional or Minority Languages.⁹

Horren ondorioz, eta kontuan hartuta Frantziako Asanbladan Konstituzioa aldatzeko eztabaida ematen ari zela, jakin izan zuten nola uzta-rtu Batzordearen eskaera eta Frantziako Estatuak frantsesa ez beste hizkuntzekiko duen utzikeria. Hartara, 2008ko uztailean honako atal hau erantsi zitzaion Konstituzioaren 75. artikuluari:

Article 75-1.

Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France.¹⁰

Hala ere, aski garbi geratu da artikulua horrek ez duela inolako ondorio juridikorik eragin herritarren hizkuntza-eskubideei begira, eta argiroki jakinarazi zioten Behatokiari 2008ko urrian helarazitako erantzun batean:

Par ailleurs il ressort des débats parlementaires afférents au projet de loi constitutionnelle de modernisation des institutions de la Ve République, que le Parlement, en inscrivant les langues régionales dans le patrimoine de la France par l'insertion de l'article 75-1 de la Constitution, n'a pas pour autant entendu remettre en cause la primauté de la langue française inscrite à l'article 2 de la Constitution ni ouvrir aucun droit nouveau.

Directeur de Services Fiscaux. 2008-10-03.¹¹

Frantziako Estatuan indarrean dagoen legeria hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa juridikoki ahalbidetzeaz gain, ez dituela kontuan hartzen ez eta nazioartean indarrean dauden itunek ezartzen dituzten gutxieneko konpromisoak ere.

Estatuko lurralde batzuetan ezarri den ofizialtasun bikoitzaren printzipioak bi hizkuntzen arteko, eta ondorioz, hizkuntza bat zein bestea erabili nahi duten herritarren arteko berdintasuna bermatu beharko luke. Hala ere, hori ez da horrela, ez eguneroko bizitzan, ez eta ikuspegi juridikotik ere. Eta horren erantzukizuna Konstituzioak bertan jasotzen duen gaztelaniaren derrigorrezko ezagutzan aurkitzen dugu.

Hori guztia kontuan hartuta, esan beharrik ez dago Frantziako Estatuan indarrean dagoen legeria hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa juridikoki ahalbidetzez gain, ez dituela kontuan hartzen ez eta nazioartean indarrean dauden itunek ezartzen dituzten gutxieneko konpromisoak ere.

HEGO EUSKAL HERRIA

Hego Euskal Herrian Espainiako Konstituzioak ezartzen du hizkuntza-erantzua nagusia. Hartara, bost artikuluk jasotzen dituzte hizkuntza-erferentziak: 1.1, 3, 20.3, 148.1.17 eta 149.2. Hala ere, horietarik garrantzitsuena 3. artikulua dugu, hain zuzen ere, hizkuntzaren statusa eta herri-tarren eskubideak zein betebeharrak arautzen dituena

3. artikulua

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik, hizkuntzak ere ofizialak izango dira, beren autonomia-erkidegoetan, haien estatutuekin ados.
3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek babes berezia izango du.

Finean, artikulua horren lehen atalean jasotzen diren lehen bi esaldiek baldintzatu dituzte egun Hego Euskal Herrian indarrean diren araudiak; bai eta araudi horiek garatzeko abian jarri diren hizkuntza-politikak ere.

Konstituzioak ezarri zuen gaztelania dela Estatu osoko hizkuntza ofiziala. Halaber, Espainiako Estatu gainerako hizkuntzen ofizialtasuna autonomia-erkidegoetako estatutuek arautuko zutela agindu zuen.

Ofizialtasunak hizkuntzarekiko ondorio juridikoak sortzeko gaitasuna du; hau da, ofizialtasunaren ondorioa izango da hizkuntza horretan egindako adierazpenen zein ekintzen balio eta eraginkortasun juridikoaren aitortza.

Ofizialtasunaren nolabaiteko definizioa Auzitegi Konstituzionalak eman zuen 82/1986 Epaiaren bidez: *“aunque la Constitución no define sino que da por supuesto lo que sea una lengua oficial, la regulación que hace de la materia permite afirmar que es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados con plena validez y efectos jurídicos.*

Auzitegi Konstituzionalak emandako epaia interesgarria da oso, izan ere, ikuspegi juridikoa soziolinguistikoaren gainean jartzen du, eta badi-rudi gutxiengoan/gehiengoan arteko banaketa horrekin amaitu nahi izan zuela. Tamalez, eguneroko errealitateak bestelakoa erakusten digu. Are gehiago, errealitate soziolinguistikoa ofizialtasuna modulatzeko faktore gisa hartu izan da, eta ofizialtasunaren eraginkortasun osoa atzeratzeko erabili izan dute. Hor dugu, esaterako, *tempus* zehatzik gabeko progresi-botasunaren mamua.

Gauzak horrela, gaztelania Estatu osorako hizkuntza ofiziala dela kontuan harturik, hizkuntza horri dagokionez lurraldetasun printzipioa aplikatu zuen Konstituzioak. Hartara, gaztelania baliatu nahi duten herritarren hizkuntza-eskubideak Estatu osoan daude aitortuta.

Euskarari dagokionez, tamalez, denetarik dugu. Batetik, autonomia-erkidego batzuek ez diote inolako statusik esleitu gure hizkuntzari, Kantabriak eta Gaztela-Leonek. Bestalde, EAEko autonomia estatutuak status ofiziala esleitu zion euskarari. Azkenik, Nafarroan status ofizial hori lurraldearen eremu batean besterik ez zitzaion esleitu. Demagogian jaus-teko arriskua sailhestu nahi badugu ere, bitxia egiten zaigu, Nafarroari dagokionez, zer-nolako irakurketa egin zuten autonomia-erkidego horretan ofizialtasuna ezartzerakoan. Konstituzioan “gainerako hizkuntzak ofizialak izango dira” jaso bazen ere, Nafarroan horren irakurketa interesatua egin zuten eta ofizialtasuna lurraldearen zati batean besterik ez zuten ezarri. Kasu bakarra da Estatu osoan, Balear Uharteetan, Galizian, Katalunian, Valentzian eta Euskal Autonomia-erkidegoan lurralde guztian esleitu baitzioten status ofiziala. Salbuespena izanik ere, Konstituzioak onartu egin zuen horrelako bidegabekeria, eta horren ondorioz, Nafarroan gertatzen den bereizkeria, autonomia-erkidego berean biztanleei eskubide desberdinak aitortuko dizkien legeak ahalbidetzen du hain zuzen ere.

Estatuko lurralde batzuetan ezarri den ofizialtasun bikoitzaren printzipioak bi hizkuntzen arteko, eta ondorioz, hizkuntza bat zein bestea erabili nahi duten herritarren arteko berdintasuna bermatu beharko luke. Hala ere, hori ez da horrela, ez eguneroko bizitzan, ez eta ikuspegi juridikotik ere. Eta horren erantzukizuna Konstituzioak bertan jasotzen duen gaztelaniaren derrigorrezko ezagutzan aurkitzen dugu.

Zenbatetan gertatu zaigu gure hizkuntza-eskubidea aldarrikatu eta “*Tú ya entiendes, porque tienes el deber de conocer el castellano*” bezalako erantzunak entzun behar izatea?. Finean, herritar zein administrazio publiko-etako langile askok ikasi du Konstituzioaren artikulua hori, gure hizkuntza-eskubideei muzin egiteko. Tamalez, arrazoirik ez zaie falta. Horrela, Administrazioetan herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak bermatzeko duten gaitasun-eza estaltzeko, herritarren betebeharrak dituzte gogoan.

Horren harira, asko izan dira Behatokiak helarazitako kexei erantzuteko Espainiako Estatuko Administrazio zenbaitek erabilitako argudioa:

Es necesario, llegados a este punto, recordar adicionalmente que de acuerdo con el artículo 3.3. de la Constitución, todos los ciudadanos españoles tienen el deber de conocer y el derecho a usar la lengua castellana, por lo que ésta constituye un instrumento válido y eficaz para hacer llegar a todos los ciudadanos españoles contenidos informativos como los que Vd. menciona.

Dedensor del Pueblo de España. 01-12-2008.¹²

Atendiendo a la queja vertida en la Hoja número 6 [...] manifestar que el uso del eusquera es un derecho, y como tal se ejerce voluntariamente, no pretendamos hacer del ejercicio de un derecho, una obligatoria imposición.

Ministerio del Interior de España. 22-05-2008.¹³

Espainiako Estatuan indarrean dagoen legeriak justiziaren eremuan hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa juridikoki ahalbidetzen duela, gaztelania jakiteko derrigortasuna euskaldunon eskubideak urratzeko aitzakia bihurtzen dela, eta beste behin, ez direla kontuan hartzen ez eta nazioartean indarrean dauden itunek ezartzen dituzten gutxieneko konpromisoak ere.

***Nafarroako Foru
Erkidegoan indarrean
dagoen legeriak
hizkuntza-eskubideen
urraketak ahalbidetzeaz
gain, Nafarroako
euskaldun gehienak
babesgabe uzten dituela.***

Los carteles se colocan en la oficina de atención a ciudadano pretenden informar de manera clara rápida y sencilla. La proliferación d carteles, idiomas o trámites, producen el efecto contrario, originando confusión entre la ciudadanía.
Ministerio del Interior de España. 22-05-2008.¹⁴

Espainiako Estatuari dagokionez ere, Nazioarteko Instituzioek hainbatetan eskatu diote jarrera aldatzeko, besteak beste, Behatokiak helarazitako kexetan oinarrituta. Gogoratu besterik ez dugu egin behar Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunaren lehen eta bigarren ebaluazioaren karira egindako gomendioak, hain zuzen ere, Espainiako Estatuako Administrazio periferikoan gaztelania ez beste hizkuntzen presentzia bermatzeko, eta langile elebidun gehiago kontratatzeko.

Justiziari dagokionez are urrunago jotzen du Europako Kontseiluak. Izan ere, Behatokiak helarazitako gertaera larriak kontuan hartuta, marko juridikoa bera berrikusteko eskaera egiten dio Estatuari.

Gomendio horiei ez erreparatzeaz gain, Estatuak muzin ere egin die. Are gehiago, gaztelaniaren nagusitasuna azpimarratzen jarraitzen dute Behatokira helarazitako erantzunetan:

[...] las reclamaciones articuladas por el Observatorio en relación con las quejas expuestas [...] parece ser que los ciudadanos explícitamente habían elegido esta la lengua para sus relaciones con la Administración de Justicia y así lo habían hecho constar al Juzgado, pero también se considera totalmente admisible y ajustada a derecho la utilización del castellano para la redacción de sus avisos de citación.

Ministerio de Justicia. 25-09-2008.¹⁵

En respuesta a su petición, le transcribimos el artículo 231 de la Ley Orgánica del Poder Judicial: En todas las actuaciones judiciales, los jueces, magistrados, fiscales, secretarios y demás funcionarios de juzgados y tribunales usarán el castellano, lengua oficial del Estado.

Consejo Superior del Poder Judicial. 26-09-2008.¹⁶

Hori guztia kontuan hartuta, esan beharrik ez dago Espainiako Estatuan indarrean dagoen legeriak justiziaren eremuan hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa juridikoki ahalbidetzen duela, gaztelania jakiteko derrigortasuna euskaldunon eskubideak urratzeko aitzakia bihurtzen dela, eta beste behin, ez direla kontuan hartzen ez eta nazioartean indarrean dauden itunek ezartzen dituzten gutxieneko konpromisoak ere.

NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAN

BAT aldizkariaren 58. ale monografikoan argitaratutako artikuluan, herritarrei aitortu beharreko hizkuntza-eskubideak eta egun Nafarroako araudiak aitortzen zituenak erkatu genituen. Hartara, esan gabe doa, egiturazko oztopoa genuela legeak hizkuntza-eskubideen bermerako egoiak zirentz baloratzerakoan, Nafarroako euskaldun gehienak eskubidez gabeturik uzten baitzituen.

Hala ere, eta artikulua egiturari jarraiki, interesgarria da ikustea zein den Nafarroako Gobernuaren erantzuna herritarren hizkuntza-eskubideak urratu dituela jakinarazten zaionean:

Zure kexari dagokionez, aditzera ematen dizut zigilu horrek ez duela legezko inolako xedapenik urratzen, zigilu hori Euskarari buruzko Foru Legeak ezarritako eremu mistoan erabiltzen baita eta, 29/2003 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, gaztelaniaz egon beharko da. (sic)

Euskarabidea. 2008-10-22.

Zure kexari dagokionez, aditzera ematen dizut kartel horrek ez duela legezko inolako xedapenik urratzen, kartel hori Euskarari buruzko Foru Legeak ezarritako eremu mistoan baitago, eta 29/2003 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, gaztelaniaz idatzi beharko da. (sic)

Euskarabidea. 2008-10-23.

Legeak berak eskubideak murrizten dituela berrestez gain, aipatu beharra dago legearen irakurketa zurrinari eusten diola Euskarabideak. Izan ere, gaztelaniaz idatzita egon behar izateak ez du zertan adierazi gaztelaniaz bakarrik egin behar denik.

Harrigarria da kexa bera Nafarroako Gobernuari edo Arartekoari bidalita, legearen beraren bi irakurketa desberdin egiten dutela:

Izena emateko eskaerak bakarrik gaztelaniaz egin ahal izateak ez du inolako legezko xedapenik urratzen, EIBZ (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa) Euskarari buruzko Foru Legeak ezarritako eremu mistoan kokaturik baitago eta 29/2003 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eskaerak gaztelaniaz egon behar dute. (sic)

Euskarabidea. 2008-10-23.

Argi dago, beraz, arauak ez duela behartzen erabiltzeko inprimakiek gaztelania hutsean egon behar dutela, ele biko formatua onartzen baitu. Baina, gainera aipatu araua "eremu mistoko pertsona fisiko edo juridikoen erabiltzeko inprimak eta formularioez" ari da, eta ari garen kontu honetan uste dugu eremu euskalduneko irakasleek ere erabil ditzaketela. Hartara, erabaki dut urratutaz jotzea herritarrek Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentura euskaraz zuzentzeko eskubidea. (sic)

Nafarroako Arartekoa. 2008-10-28 (Euskarabideak emandako argudioari erantzunez).

Hala ere, egiturazko arazoak bere horretan dirau. Izan ere, indarrean dagoen araudiak zirrikiturik uzten ez duenean, Nafarroako Arartekoak ere eskubide-urraketarik ez dela gertatu berresten du:

Urriaren 2ko bidalitako idatzian esan nuen bezala, ezin dugu esan gertakari hau antolamendu juridikoan onartutako eskubideak galera edo zaurtzapena denik. Zio horregatik Administrazio Publikoari gomendioak edo legezko bete beharrak gogorapenik egitea egokia ez dela erabakitzen dugu (sic).

Nafarroako Arartekoa. 2008-11-10.

Azaltzen diren gertakariak, biak lurralde mixto seinaleztapen-sistema erlazionatutak, 18-1986, abenduaren 15ako Foru Legea 8. artikulua zaurtzapena ez dugu nabaritu, kontsekuenteki ezin dugu esan gertakari horrek hiritarrei antolamendu juridikoan onartutako eskubideak galera edo zaurtzapena denik. Zio horregatik Administrazio Publikoari gomendioak edo legezko gogorapenik egitea egokia ez dela erabaki behar dugu (sic).

Nafarroako Arartekoa. 2008-10-02.

Behatokiaren 2008ko urteko txostena aurkeztu berri dugun horretan, beste urte batez agerian jarri behar izan dugu ofizialtasunak eragiten dituen ondorio juridikoak betetzetik urrun daudela erakundeak, ordea.

***Euskal Autonomia
Erkidegoan legeak
hizkuntza-eskubideak
aitortu arren, horien
bermerako mekanismo
juridiko-administratibo
eraginkorrik ez dagoela.***

Azken erantzunean ikus daitekeen moduan, euskarazkoa ulertzea ez da batere erraza, eta beste behin gaztelaniazko bertsioari erreparatu behar izan zaio edukia zuzen ulertzeko, finean herritarrek eskubideak legez aitortuta ez badituzte, gomendioak egiterik ez dagoela gogorarazteko.

Gauzak horrela, Nafarroako Arartekoak berak ere propio jasotzen du antolamendu juridikoak onartutako eskubideez ari garela. Jarri ditugun bi adibide horietan Nafar herritarren eskubideak urratu diren arren, legeriak eskubide horiek aitortu ere egiten ez dituenetz, ez dute ez eta kexa egiteko eskubidea sortzen ere.

Hori guztia kontuan hartuta, esan beharrik ez dago Nafarroako Foru Erkidegoan indarrean dagoen legeriak hizkuntza-eskubideen urraketak ahalbidetzeaz gain, Nafarroako euskaldun gehienak babesgabe uzten dituela.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoaren azterketa egiteko, lehenik eta behin gogoratu behar dugu Autonomia Erkidego osoan dela euskara berezko hizkuntza eta *status* ofiziala esleitu zitzaiola hiru lurraldeetan.

Horren ondorioz, euskaldunoi hainbat eskubide aitortzen zaizkigu, besteak beste, administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eta euskaraz artatuak izateko eskubideak.

Behatokiaren 2008ko urteko txostena aurkeztu berri dugun horretan, beste urte batez agerian jarri behar izan dugu ofizialtasunak eragiten dituen ondorio juridikoak betetzetik urrun daudela erakundeak, ordea.

Biziki kezkatzen gaitu, esaterako, egun indarrean dagoen legeriak OSAKIDETZAn lanpostuei euskararen derrigorrezko ezagutza atzeratzeko zirrikituak ahalbidetzea, herritarrei alboko kalte-ondorioak eraginda ere, babesgabe egon behar izatea, legeria betetzeko eskaera behin eta berriro egin behar izatea.

Izan ere, eta artikulua egiturari jarraiki, Eusko Jaurlaritzatik Behatokira bidaltzen diren erantzun asko ez dira balekoak herritarren hizkuntza-eskubideen urraketei amaiera emateko.

Esaterako, osasun sailera urterik urte bideratutako ehunka kexaren edota eskubide-urraketaren aurrean ez dute neurri zehatzik aipatzen horiek konponduko direla bermatzeko:

Izan ere, dakizunez, Osakidetzan ahaleginak egiten ari gara euskarak gure zerbitzuetan dagokion tokia izan dezan. Bide horretan, Osakidetza Euskara Plana abiatu zenetik hasita, ustez beharrezko neurriak hartu ditugu eta hartzen ari gara euskararen erabilera normalizatzeke. (sic)

OSAKIDETZA. GALDAKAOKO OSPITALEA. 2008-04-17.

Izan ere, dakizunez gure osasun-eskualdean ahaleginak egiten ari gara euskarak gure zerbitzuetan dagokion tokia izan dezan eta, beraz, Euskara Plana abiatu ondoren, neurriak hartzen ari gara gure zentroetan euskararen erabilera normalizatzeke. Baina, jakina, euskararen normalizazioa prozesu bat da, arian-

arian hezurmamitu eta gizarte osoarekin batera burutuko dena. (sic)
OSAKIDETZA. 2007-10-05.

Plan honek lehentasun batzuk markatzen ditu. Planaren fase honetan, Lehen Atentzioko espezialistak ez direnek ez daukate oraindik hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharrik. Aurrerago, plana aurreratu ahala, alegia, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-datak ezarriko zaizkie. (sic)

OSAKIDETZA. GIPUZKOAKO MENDEBALDEKO ESQUALDEA. 2007-03-08.

Ez da jasotzen, hala ere, zenbait lanposturen esleipenetan derrigortasun-datak atzeratu dituztela, eta behin lanpostua eskuratuta iraungi izan zaiela. Ondorioz, lanpostu horiek hartu dituzten langileek ez dute hizkuntza-eskakizuna derrigorrez egiaztatu beharko.

Gogoratu beharra dago, Osakidetza, erakunde publiko gisa, eta Bilboko Eskualdea, Osakidetza erakunde gisa, euskara biziberritzeko prozesuari buru-belarri egiten diotela egunera, eta horretarako, aldian-aldian hainbat neurri hartzen dutela.

Normalizazio-prozesua burutzean, Euskal Herriko erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak osorik bermatuko dira. (sic)

OSAKIDETZA. BILBOKO ESQUALDEA. 2007-03-19.

Dakizuenek erakunde publikoak hizkuntza eskubideak garatze edo finkatzeko bidean ari gara: zoritxarrez bide hau luzea da eta oraindik gai asko jorratzeko beharrea gaude. Beraz naiz eta gure utsuenak ordaunduk andiak izan tartea edo sasoi bat behar dugu aipautako hizkuntza eskubideak bere osotasunean bete egiteko. (sic)

OSAKIDETZA. GURUTZETAKO OSPITALA. 2007-04-24.

Herrizaingoa da Behatokiak urterik urte egiaztatzen duen beste beltzuneetako bat. Zorionez, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak ere bi beltzune antzeman zituen Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-politikan, besteak beste, Behatokiak herritarren bizipenetan oinarrituta helarazitako kexengatik.

Hala ere, urterik urte Herrizaingo sailak Behatokiaren kexei ematen dien erantzuna ez da aldatzen:

Sail hau, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera, Ertzaintzaren kidegoa euskalduntzeko egitaraua ari da garatzen; egitarau horren xedea herritarrei norberak hautatzen duen hizkuntza ofizialean jaramon egitea da. Jakina da prozesua motela dela, mailaz maila burutu beharrekoa, eta egun, oraindik, osatu gabe dagoela; dena dela, hori gorabehera, jakin ezazu helburu hori lortzeko ete-nik gabe eta era iraunkorrean lanean ari garela, berariaz zaintzen ditugula herritarrei jaramon egiteko zerbitzuak eta ahaleginak eta bi egiten ditugula herritar horien guztiek eskubideak jagoteko, hizkuntzaren arloko eskubideak barne. (sic)
EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGOA. 2008-10-15.

Sail hau, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera, Ertzaintzaren kidegoa euskalduntzeko egitaraua ari da garatzen; egitarau horren xedea herritarrei norberak hautatzen duen hizkuntza ofizialean jaramon egitea da. Jakina da prozesua motela dela, mailaz maila burutu beharrekoa, eta egun, oraindik, osatu gabe dagoela; dena dela, hori gorabehera, jakin ezazu helburu hori lortzeko ete-nik gabe eta era iraunkorrean lanean ari garela, berariaz zaintzen ditugula herritarrei jaramon egiteko zerbitzuak eta ahaleginak eta bi egiten ditugula herritar horien guztiek eskubideak jagoteko, hizkuntzaren arloko eskubideak barne. (sic)
EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGOA. 2007-11-29.

Sail hau, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera, Ertzaintzaren kidegoa euskalduntzeko egitaraua ari da garatzen; egitarau horren xedea herritarrei

*Euskara erabili,
hizkuntza-eskubidea
baliatu nahi eta ezin izan
duten milaka
espedienteren kasuistika
kudeatu dugu. Milaka
erabilera-saiakera
eragotzi da azken
urteotan. Eta erabilera-
saiakera horiek guztiak
Euskararen Legeen
babespean zapuztu izan
dira.*

norberak hautatzen duen hizkuntza ofizialean jaramon egitea da. Jakina da prozesua motela dela, mailaz maila burutu beharrekoa, eta egun, oraindik, osatu gabe dagoela; dena dela, hori gorabehera, jakin ezazu helburu hori lortzeko etenik gabe eta era iraunkorrean lanean ari garela, berariaz zaintzen ditugula herritarrei jaramon egiteko zerbitzuak eta ahaleginak eta bi egiten ditugula herritar horien guztiek eskubideak jagoteko, hizkuntzaren arloko eskubideak barne. (sic)
EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGOA. 2006-12-21.

Erantzunetan ikusi bezala, eskubide-urraketei erantzuteko argudioa borondatean oinarritzen da. Badirudi azken urteotan izan diren lan-deialdietan euskararen derrigorrezko ezagutzak izan duen garrantzi txikiak, edota Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko dekretu berria abian jarri ez izanak ez dutela ondorioz izan herritarren hizkuntza-eskubideen urraketetan.

Azkenik, interesgarria iruditzen zaigu Kultura Sailak Behatokia helarazitako erantzun bat, hain zuzen ere, Donostiako ordezkarietan zerbitzua euskaraz jaso ez izanagatik. Izan ere, herritarren oinarriko eskubideak eta funtzionarioen eskubideak elkar joka daudela argudiatzea ere izan dugu kexen erantzuteko arrazoi, zertarako eta herritarren eskubideei ez erreparatzeko. Zeinek du, bada, lehentasuna? Zeini bermatu behar dio ezeren edo inoren aurretik eskubidea?

Administrazio-atal horretan egun dugun egoera horretan elkar jo ditugu, batetik, herritarrek zerbitzu hori euskaraz jasotzeko dituzten hizkuntza-eskubideak bermatzeko ditugun lege-xedapenen garapen-maila eta, bestetik, langile horiek herri-langile diren aldetik, karrerako funtzionarioak, Funtzio Publikoaren Legearen arabera, jabetzen duten lanpostuarekiko dituzten eskubideak. (sic)
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailsa.

Hori guztia kontuan hartuta, esan beharrik ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan legeak hizkuntza-eskubideak aitortu arren, horien bermerako mekanismo juridiko-administratibo eraginkorrik ez dagoela.

ONDORIOAK

Hartara, egun indarrean dauden *Euskararen Legeek* hiru kezka eragiten digute:

- **Aitortza-eza:** Euskararen Legeetako batzuek hizkuntza-eskubideak ez aitortzeak babesgabe uzten ditu herritar euskaldunak.
- **Progresibotasun-eza:** Hainbat kasutan hizkuntza-eskubideen bermean progresibotasunik ez dagoela egiaztatu ahal izan da. Eskubide-urraketa batzuk urterik urte errepikatu egiten dira, eta zortzi urtez diagnosiak egiten ari garela kontuan hartuta, progresibotasuna *tempus* zehatzetara ekarri behar dela ondorioztatu dugu. Progresibotasunaren edota arian-arian delakoaren definizio malguak eskubideen urraketan betikotzea dakarrela egiaztatu dugu. 2001ean jasotako kexak kudeatu behar izan dira 2009an.

- **Milaka urraketa:** Behatokiak ez ohi dio erreparatzen ikuspegi kuantitatiboari kexen irakurketa egiteko. Hala ere, urterik urte esku-bideen urraketen kopuruak gora egitea hausnarketarako elementua dela uste dugu. Euskara erabili, hizkuntza-eskubidea baliatu nahi eta ezin izan duten milaka espedienteren kasuistika kudeatu dugu. Milaka erabilera-saiakera eragotzi da azken urteotan. Eta erabilera-saiakera horiek guztiak *Euskararen Legeen* babespean zapuztu izan dira.■

OHARRAK

1. 1994ko abuztuaren 4ko legean xedaturikoa jakinarazten dizut; hau da, zerbitzu publikoen hizkuntza frantsesa dela. Horrenbestez, ezinbestean erabili behar da eta frantsesez idatzitakoek baino ez dute lege-baliorik, eta ez da agintzen hizkuntza erregional baterako itzulpenarekin batera egon behar dutenik. ANPE. Agence Nationale Pour l'Emploi (Enplegu Agentzia Nazionala). 2008-07-29.
2. Zure korreoa dela-eta [...], mesedez irakurri 1994ko abuztuaren 4ko 94-554 Legeko 1. artikulua, frantsesaren erabilerari buruzkoa. Ministère du Budget des Comptes et de la Fonction Publique (Kontuen Aurrekontuaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioa). 2008-12-31.
3. Autozerbitzu-terminaletarako Baldintza-agirian, ez da adierazten informazioa euskaraz egon behar duenik. Bestalde, 1994ko abuztuaren 4ko Legearen 1. artikulua dela-eta [...]. Beraz, SNCFk informazio hori atzerriko bi hizkuntzataraz itzultzeko betebeharra baino ez du... SNCF. 2008-09-17.
4. Nolanahi ere, gogorazi nahi dizut Frantziak ez duela sinatu zuk korreoa aipaturiko Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, eta, halaber, ez duela berretsi Hizkuntza Erregionalen eta Gutxituen Europako Gutuna, Konstituzio Kontseiluak zentsura egin ondoren.
5. Errealitatearen aitortzea 77. Frantziako gobernuari eskatu zaio: (1) aitortzea haren lurraldeko mugen barruan dauden gutxiengo nazionalak eta etnia-, erlijio- edo hizkuntza-gutxiengoak, eta erre-erbarik gabe onartzea Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikulua, gutxiengo batekoa den pertsona ororen eskubidei buruzkoa, eta Haurren Eskubideen Konbentzioaren 30. Artikulua; eta (2) berrestea Europako Giza Eskubideen Itunak, gutxiengoaren eskubidei buruzkoak, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 12. Protokoloa eta Europako Kontseiluaren Gutxiengo Nazionalen Babeserako Esparru Hitzarmena barne.
6. Hizkuntza-, erlijio- eta kultura-eskubideen sustapena 93. Aditu independenteak Frantziari Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna berresteko eskatzearen alde egin du; gutun horrek Europako estatu guztiei balio handiko orientazioa ematen die horrelako gaiak lantzean, eta estatu bakoitzaren kultura- eta hizkuntza-ondare aberatsa babesten eta sustatzen laguntzen du. Frantziako gobernuak hizkuntza erregionalen eta gutxituen erabilera bultzatu beharko luke irakaskuntza-tresna gisa Lehen Hezkuntza Publikoko lehenengo urteetan, betiere hala eskatzen duten ikasle-entzat.
7. 29. Batzordea kezkatuta dago estatu partaidearen lurraldean gutxiengoek aitortpen ofizialik ez dutelako. Hain zuzen, kultura-eskubideei dagokionez, Batzordeak kezka handiz ohartu du horietako eskubide batzuk ez direla errespetatzen; esaterako, hizkuntza gutxituren bat erabiltzearen esku-bidea, hizkuntza hori komunitatean bakarrik —hau da, talde gutxiengoduneko kideekin— hitz egin daiteke-eta.
8. 30. Batzordeak kezka handiz ohartu du estatu partaidea ez dela behar beste ahalegindu hizkuntza erregionalak eta gutxituak nahiz kultura-ondarea babesteko eta sustatzeko. Gainera, hizkuntza erregional eta gutxituak formalki aitortu ez izanak hizkuntza horien hiztun-kopurua gero eta txikiagoa izatea eragin duela ere azpimarratu du.
9. 49. Estatu partaideak talde gutxiengodunak onartzea, baita horien eskubideak ere, Konstituzioarekin bateraezina dela azaldu duela kontutan hartuta, Batzordeak berriz ere azpimarratu nahi du legearen aurrean berdintasunaren printzipioak eta diskriminazioaren debekua ez direla beti egokiak, talde gutxiengoduneko kide ororen giza eskubideak maila berean eta modu eraginkorrean ziurtatzeko, batez ere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak. Hortaz, Batzordeak estatu partaideari bere

jarrera berraztertze eskatu dio, Konstituzioan gutxiengoak onartu ditzan, eta ofizialki onartu dezan estatu partaidearen jurisdikzioan talde gutxiengodunen kultura-aniztasuna babestearen beharra dagoela, 15. artikulua xedatzen duenaren arabera. Horri jarraiki, Batzordeak aurreko ondorioetan egindako gomendioa (E/C.12/1/Add.72, para. 25) azpimarratzen du. Bertan, estatu partaideari eskatzen zaio (1) Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Konbentzioaren 27. artikulua eta Haurren Eskubideen Konbentzioaren 30. artikulua erreserbarik gabe onartzea eta (2) Europako Kontseiluaren Gutxiengo Nazionalen Babeserako Esparru Hitzarmena eta Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna berresteari buruz hausnartzea.

10. 75-1. artikulua. Eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondare dira

11. Bestalde, V. Errepublikako erakundeak modernizatzeko konstituzio-legeari buruzko proiektuarekin lotutako parlamentuko eztabaidetatik hau ondorioztatzen da: Parlamentuak, Konstituzioaren 75-1. artikulua txertatzean hizkuntza erregionalak Frantziaren ondare direla adierazi badu ere, ez duela zalantzan jarri frantsesaren nagusitasuna —Konstituzioaren 2. artikuluan adierazten da nagusitasun hori—, ezta eskubide berri bat ezarri ere. Directeur de Services Fiscaux (Zerga Zerbitzuen zuzendaria). 2008-10-03.

12. Puntu honetara helduta gogoratu behar da gainera Konstituzioaren 3.3 artikuluekin bat, Espainiako hiritar guztiek gaztelania ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dutela. Beraz, hizkuntza hori tresna baliagarri eta eraginkorra da espainiar hiritar guztiei zuk aipatu duzun informazioa helarazteko. Espainiako Herri Defendatzailea. 2008-12-01.

13. 6. Orrian jarritako kexuari erantzuna emanez [...] esan dezagun euskara erabiltzea eskubidea dela, eta, horrela, borondatez egikaritzen dela. Ez dezagun eskubidezko jarduera derrigorrezko inposizio bihurtu. Espainiako Barne Ministerioa. 2008-05-22.

14. Hiritarren arretako bulegoan jartzen diren horma-irudiek informazioa argi, azkar eta erraz ematea dute helburu. Horma-irudiak, hizkuntzak edota izapideak ugaritzeak alderantziko ondoriok dakartza, hiritarren artean nahasmendua sortuz. Espainiako Barne Ministerioa. 2008-05-22.

15. Behatokiak kexen inguruan azalduriko erreklamazio artikulatuak [...] badirudi hiritarrek hizkuntza hori berariaz aukeratu zutela Justizia Administrazioarekin harremanak izateko, eta horrela jasota geratu zen Epaitegian, baina erabat onargarria eta eskubidearekin bat dator zitazio-oharretarako gaztelania erabiltzeko eskubidea. Justizia Ministerioa. 2008-09-25.

16. Zure eskaerari erantzunez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua transkribatzen dizugu: epaile-jarduera guztietan, epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariek eta gainerako epaitegi- eta auzitegi-funtzionarioek gaztelania, Estatuko hizkuntza ofiziala erabiliko dute. Botere Judizialen Kontseilu Nagusia. 2008-09-26.